

## LANBAI II, Enplegu eta Formazio Azoka

2014/06/06

Graduatuek eta enpresa eta erakundeak harremanetan jarri eta graduatu ondoren dauden formazio aukera espezializatuak ezagutu. Bi helburu hauekin antolatu du aurten Mondragon Unibertsitateak LANBAI, II Enplegu eta Formazio Azoka. Azoka hau lan bila dabilen edonori irekia da, bere ikasketak edonon garatu dituela ere, sarrera librea izango du. Azokak, LANBIDEren laguntza jaso zuen lehenengo edizioan eta horrela jarraitzen du oraingoan ere baina, kasu honetan, Arrasateko Udalaren babesarekin ere kontaktzen du azokak.

Hain zuzen ere, Mondragon Unibertsitateko Errektorea den Iosu Zabalak eta Arrasateko Alkatea den Inazio Azkarragaurizar-ek, lankidetzari honi bermea ematen dion hitzarmena sinatu dute azokaren antolakuntza eta garapenerako, erakunde bien indarrak batuz, enplegua gazteengana hurbildu eta Arrasateko langabezia tasa murrizteko elkarlanean ahaleginak egiteko (martxoan, %16koa zen).

LANBAI enplegu foro bat dela esan dezakegu, gai honetan interesa duen orori irekia eta langabezian dauden edo beraien formazioa aberastu nahi duten pertsonen zuzendua, enpresa eta erakundeekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera ematen duena.

Hitzordua datorren ekainaren 19an izango da, 15.00etatik 19:00ak arte, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak Arrasaten, Garaia Berrikuntza Gunean duen eraikinean.

### Gune desberdinak

Enpresa eta erakundeen gunean, arlo edo sektore desberdinetako enpresak egongo dira, bakoitza bere stand propioarekin eta interesatuek pertsonalki utziko dituzte curriculumak bertan, enpresa edo erakunde horrek, profil zehatz bat behar duenean, curriculum hauetara jo dezan.

Aurten, gainera, azokaz gain, enpleguarekin eta laneratzearekin zerikusi zuzena duten hainbat hitzaldi antolatu dira, ekainaren 16tik, astelehena, 18ra, asteazkena, Kulturaten, 18.00etan eskainiko direnak. Hitzaldi hauek ere irekiak dira eta edonork du bertaratzeko aukera.

Jada, sektore desberdinetako 20 enpresak baino gehiagok baieztatu dute beraien presentzia azokan: AAF, AFM, ALECOP, AZK, Batz, Cikautxo, Danobat Group, Decathlon, EURES, Fagor Arrasate, Fagor Ederlan, Fundación Novia Salcedo, Hekimen Elkarte, IK4-Ikerlan, Ingeteam, Ingroup Consultoría, Irizar, Laboral Kutxa, LANBIDE, MEI, Mondragon Lingua, San Viator Ikastola, Santo Tomas Lizeoa, Deba Garaiko Enplegu Zerbitzua, Ulma eta Zosma Media.

[Azokari buruzko informazio guztia](#)

